

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2022ko ordainagiria kobratzea

Nik, Juan José Betolaza Pinedok, Arabako Lurralde Historikoko Urizaharreko Udaleko alkate-lehendakariak, honako hau

Jakinarazten dut

2022ko urriaren 1etik azaroaren 30 arte, biak barne, borondatezko epean ordaindu ahal izango dira udal honetako landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2022ko ordainagiriak.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2022ko urriaren 28an kobratuko zaie.

Tasa horiek ordaindu behar izan eta ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Azaroa heldu eta ordainagiri abisurik jaso ez badute, Urizaharreko Udalaren idazkaritzan eskatu beharko dute.

Zergapekoei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Borondatezko epe hori igaro eta zorra ordaindu ez bada, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketa Arautegi Orokorrak, eta dagokion errekaruarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Urizaharra, 2022ko abuztuaren 16a

Alkatea

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO